

AZALAREN EGILEA

“Helduentzako ikastaroek aktibo egoteko aukera hori, nolabaiteko indarra ematen digu, ahalmena”

Azalaren egilearekin solasean



Kepa Iturralde
Arkitektoa. Ikerlaria eta Irakaslea
TU München-en
Jasotze-data: 2016-02-01
Onartze-data: 2016-02-15

Zenbaki honen azalaren egilea ESM izendatuko dugu, ez baitu bere izena azaltzerik nahi. Bera, EHUK antolatzen dituen Helduentzako Unibertsitate Ikastaroetan topatu dugu; izan ere, zenbaki honen gaiarekin lotua dagoen adintze aktiboaren adibide dira ikastaro horiek. ESMk betidanik izan du artearekin zerikusia duten gaiekiko lotura eta grina.

=====
Nolako izan zen zure lehen harremana marrazketarekin?

Ni Pasai San Pedron jaio nintzen, eta bertako eskoletako maistrek nahiko ondo erakutsi ziguten eskulanezikiko abilezia bultzatzen. Marrazketa Txapelketak ere izaten genituen eta bat edo beste irabazi nuen. Dena dela, 10 urtetatik lanean ibili nintzen, lehenik portuarekin eta arrantzarekin erlazioa zuten lanetan, eta, ondoren, 15 urterekin Bianchi enpresan; horren ondorioz, denbora batean ez nuen berriz marrazteko aukerarik izan, beste lan eta ikasketa batzuk nituen, kontabilitatea, mekanografia eta horrelakoak. Ondoren, behin ezkondu eta familia izan nuenean, Oiartzunera mugitu ginen eta han Hautzaro ikastolan parte hartu nuen aktiboki, boluntario, haurren eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen. Orduan, gainera, euskara berrikasi nuen, modu nahiko serioan, eta EGA eta Irakasletza titulua (Filologia adarrean) atera nituen. Ordurako etxeko enpresan lan egiten nuen.

Eta zein da Helduentzako Unibertsitate Ikastaroetan gehien motibatzen zaituena?

Gehienbat aktibo egoteko aukera hori, nolabaiteko indarra ematen digu, ahalmena. Eta ni, behintzat, pozik eta itxaropentsu nabil ikastaro horietan, oso aberasgarria da.

Prozesua deskribatzeko erabili nuen eguneroko batean azaldu nuen interesatzen zitzaidana zera zela: «Gure artean eta haiekin [hiriekin] elkarrizketan aritzea, hiriek eta istorioek hitz egiten duten hizkuntzaz. Batzuetan baldarra izanagatik abegikorra den lengoia bat, esanahiaren zati bat bakarrik gordetzen dugun hitz hautsiez osatua. Hala jarrai dezakegu fikzioak eraikitzen, eta ulertzen ez ditugun bizitzaren hutsune horiek zementuz betetzen».

Zein izan da azala egitean motibazio eta gai nagusia? Nola azal zenezake?

Oinarritzat Lurra hartu nuen, eta bertatik landare edo zuhaitz bat ateratzen da, zazpi sustraiduna, lau alde batetik eta hiru bestetik, Euskal Herriaren alegoria moduan. Lurrak elikadura ematen dio, bistan da, landareari. Lurraren gainetik zubi moduko bat azaltzen da, nolabait, Norvegiar bada halako zubi oso biribil bat, eta jakina da zubiek bide askotara eramaten gaituztena. Zubi hori hain da biribila, ezen munduaren antza baitu, irteteko eta ateratzeko balio duen zuba. Gainera, horren gainean bi eraikin ditugu, bata Musikeneren antza duena, eta bestea gure ikastaroak izaten diren eraikinarena. Eraikin bat artearen eta iaioitasunaren sinbolotzat har dezakegu, eta bestea jakintza nolabait praktikoagoarena. Euskal Herria osotasun horretatik hartzea nahiko nuke, eta landare horrek bere fruitua ematea, batetik gorria, kasik odola bezalakoa, eta beste aldetik berdea, itxaropentsua eta osasunaren eta babesaren modukoa.

===